

Bezeroen Marjina 938 milioira arte hazi da

Kutxabankek 302 milioi euroko irabazia izan du 2017an, %23,6 gehiago, eta hobekuntzak marjina guztietan

- Taldeak kaudimenean lider jarraitzen du, %15,7ko CET1 indizearekin, eta nazioarteko hiru rating agentziek beren kalifikazioak hobetu dituzte, sistemako onenen artean kokatuz
- 795 milioitan murriztu ditu zalantzazko aktiboak eta berankortasuna %4,9ra jaitsi du, alorraren bates bestekoaren oso azpitik, errentagarritasunean eta eraginkortasunean hobekuntza arinak lortuta
- Jarduera komertziala izan da emaitza onen gakoa, hipoteka maileguak %17,3 hazi baitira eta %29 enpresen finantziarioa
- Akziodunen Batzarrari irabazi garbiaren %50 banatzea proposatuko dio, 151 milioi euro

2018ko otsailaren 24an.- Kutxabank Taldeak **302 milioi euroko irabazi garbi trinkoarekin** amaitu du 2017. urtea, aurreko ekitaldian baino **%23,6 gehiago**, eta CajaSur-ek emaitzen kontura **15,9** milioi euroko ekarpena egin ostean. Finantza Taldeak **marjina guztietan hobekuntzak** lortu ditu, baita **Interesen Marjinean** eta aktibo osoaren saldoan ere, azken hau %1,6 hazi baita.

Joan den ekitaldian, nazioarteko hiru rating agentzia nagusiek, Moody's-ek, Standard & Poors-ek y Fitch-ek, erakundearen mailegu kalifikazioak sistemako onenen artean kokatu dituzte. Azaroaren amaieran, hirugarren urtez jarraian, Kutxabankek berretsi egin ditu **kaudimenean Estatuko erakundeen artean duen kaudimeneko lidergoa** eta palankatze ratio onena, Europako Banka Agintaritzak eginiko gardentasun azterketan. Gainera, ekitaldia amaitu baino lehenago, Europako Banku Zentralak 2018rako eginiko **kapital eskakizunak aise gainditzea** ere lortu du, eta honela ikuskatzaileak euskal Bankuari ezarritako gutxieneko kaudimen-maila murriztu egin dio.


Kutxabankek egungo **dibidendu politikari eutsi** ahal izan dio, azken hiru **ekitaldietan urteko irabazi garbiaren %50ean** finkatutakoa, guztira **382,5 milioi euro**.

Bilakera positibo hau testuinguru makroekonomiko onuragarriagoan gertatu da, nahiz eta **oraindik ere ziurgabetasuna** agerikoa izan. Hala nola, EBZren moneta-politikak ezarritako baldintzez gain, interes tipoek negatiboan jarraitzen dute (%-0,19 abenduaren amaieran), eta alorreko erakundeen artean mugimendu korporatibo esanguratsuak jazo dira. Hau guztia, araudiari eta ikuskaritzari dagokienez eskakizun handiko baldintzetan gertatu da, gainera.

Aurkako faktore hauen erdian, azken emaitzaren hobekuntza **jarduera komertzial bizi eta trinkoan** oinarritu da, batik bat hipoteka maileguen negozioan eta enpresen finantziazioan, **marjinen kudeaketa onean, aseguruen negozioak** duen ekarpen geroz eta handiagoan, **fondoetan eta pentsio planetan** kudeatutako ondarean hazkundean, bai eta arriskuei lotutako aldagarrien hobekuntza politikan eta lotura-maila oneko bezero digitalen igoeran ere. Hau guztia, gobernantzaren eta **berankortasun, errentagarritasun eta eraginkortasun ratioen etengabeko hobekuntzarekin.**

Palanka hauei **higiezinaren merkatuaren bilakaera** eta **kaudimendun maileguaren eskariaren hobekuntza** gehitu zaizkie, inbertsio-zorroa balorean ipini izanaz gain, araudi gogorren oztopoak konpentsatzeko.

Saneamenduetarako eta arriskuen estaldurarako zuzkidurek **zuhurtzia goereneko mailetan** jarraitu dute, eskakizun maila handiko araudiari aurre egin ahal izateko.



Emaitzen kontua geroz eta sendoagoa

Kutxabank Taldearen emaitzen kontua sendoagoa izan da 2017. urtean, **marjina guztietan hobekuntzak** izan eta gero. Bankua 2012ko urtarrilean sortu zenetik lehen aldiz, **Interesen Marjina** hazi egin da, nahiz eta igoera arina izan (%0,1), aipagarria da, eta **558,7** milioi eurotan kokatu da. Interes tipo murrizteari aurre egiteko palanka nagusia pasiboko prezioen

kudeaketa aktiboa izan da. Horrela, **finantza gastuen beherakada geroz eta aipagarriagoa** izan da, 2016ko abenduarekiko **%45,9** jaitsi baitira.

Zerbitzuengatik Sarrerak 379,6 milioi eurokoak izan dira, aurreko urtean baino **%10,4** gehiago. Finantza merkatuen eta aseguruaren negozioaren bilakaera, **zerbitzuen** eta ordainbideen **komisioen** hazkundea, eta kontsumoaren hobekuntza dira bilakaera positibo honen arrazoi batzuk.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2017ko abendua


| M€ | 2016 | 2017 | % Δ |
|-------------------------------|------------------|------------------|-------------|
| Interesen mj. | 557.998 | 558.732 | 0,1 |
| Komisioak | 343.825 | 379.562 | 10,4 |
| OINARRIKO mj. | 901.823 | 938.294 | 4,0 |
| Partaidetuen errendimendua | 138.617 | 67.236 | (51,5) |
| Finantza erag. | 170.774 | 276.191 | 61,7 |
| Beste Ustiapen emaitzak | 45.210 | 49.977 | 10,5 |
| Mj. GORDINA | 1.256.424 | 1.331.698 | 6,0 |
| Administrazio Gastuak | (648.505) | (626.596) | (3,4) |
| Amortizazioak | (56.086) | (54.997) | (1,9) |
| USTIAPEN mj. | 551.833 | 650.105 | 17,8 |
| Hornidurak eta beste emaitzak | (238.104) | (368.236) | 54,7 |
| Zergak eta bestelakoak | (69.481) | 20.085 | n.s. |
| TALDEAREN EMAITZAK | 244.248 | 301.954 | 23,6 |

Interes tipoak gutxiengo historikoetan diren testuinguru honetan, bezeroentzako balorea eskaintzen duten produktuen komertzializazioa izan da jardueraren gakoetako bat, aseguruak kasu. Honela, **aseguruaren negozioak** Taldearen emaitzari egin dion ekarpena **123,6 milioi** eurokoa izan da, **%10,3 handiagoa**. Erabakiorra izan da produktu berriak merkatuan jarri izana, autonomoentzako osasun polizak, ehorzketakoak edota ahoko-osasunekoak. Interesen marjinean eta zerbitzuengatik sarreretan izan den hobekuntza honek **938,3 milioi** eurotan kokatu du **Oinarriko Marjina**, 2016an baino **%4 gorago**, azken hilabeteetako joera positiboa berretsita.

Ustiapen Marjina %17,8 hazi da

Partaidetuen zorroak sendo jarraitu du eta Kutxabank Taldearen zuzkidurak handitu eta negozioaren jasangarritasunari lagundu dio. Dibidenduengatik sarrerak eta baliokidetasunean jartzeak %51,5 murriztu dira, **67,2 milioi** eurotara arte, iazko 138,6 milioien aldean. Aitzitik, **finantza-operazioen** eta truke-desberdintasunen emaitzak **276,2 milioi** eurora heldu dira 2017an.

Honekin guztiarekin, **Marjina Gordina 1.331,7 milioi eurokoa** izan da, aurreko urtean baino **%6 gehiago**, jarduera komertzialak eta enpresen zorroak izan duen hobekuntzaren erakusle.



Ustiapen Gastuek murrizteko izan duten joerari eustea lortu dute eta **%3,3** egin dute behera, gastuak txikitzeko eta baliabideak hobetzeko ezarri diren politiken eraginkortasuna berretsiz. Langilegoaren gastuek **%4,1**eko beherakada nabarmena izan dute, 2017an ere ezarri diren arrazionalizazio neurriengatik. Gainera, gastuak txikitzeko ahaleginengatik, **administrazioko gastu orokorrak %1,8** jaitسي dira, eta **%1,9 amortizaziokoak**. Beraz, **Ustiapen Marjina %17,8** hazi da.

Orotara, **eraginkortasun ratioa %51,2koa** zen 2017ko urte amaieran, urte bat lehenago zuen **%56,1**en aldean. Ratio honek erakusten duenez, sarrera gordinetan dituen 100 eurotatik 51 gastatzen ditu erakundeak. Beraz, **ia bost puntu jaitسي** da batez besteko hori ekitaldi bakar batean, eta erakundeak bere buruari jarri zizkion helburuak betetzeko bidean jarri da.


Saneamenduetarako eta gertakizunen estaldurarako ekarpenei dagokienez, **zuhurtzia maila gorena** mantendu da mailegu-arriskua, arrisku-judiziala eta higiezinena estaltzeko. Honela, banka-negozioaren eta partaidetuen zorroko sarreren hobekuntzek, zuzkidura aipagarriak egitea erraztu dute, guztira **434 milioi euro**. Honela, Banka Taldeak oinarriak jarri ditu eskakizun maila handiko araudiari aurre egin ahal izateko. Esandako guztiarekin, Kutxabank Taldearen **irabazi garbi trinkoa 302 milioi eurokoa** izan da, 2016ko amaieran baino **%23,6 gehiago**.

Berankortasunaren jaitsiara nabaria eta errentagarritasunaren hobekuntza

Berankortasunaren bilakaeran 2014an hasi zen beherazko inflexioa berretsi egin da 2017an, sendoago, gainera. **Zalantzazkoetako sarrerak % 31 jaitسي dira** iazkoen aldean eta **zalantzako aktiboen saldoak 795 milioi euroko murrizketa izan du** iazko ekitaldian. Horrek guztiak Taldearen berandutza-ratioaren etengabeko hobekuntza ekarri du, eta abenduko itxieran, **% 4,9an** kokatu da, iazko ekitalditik 170 oinarritzko puntu azpitik.

Ehuneko hori sektorearen batez bestekoa baino nabarmen hobea da, % 7,79ko berankortasunaz itxi baitzuten 2017ko abendua. Higiezinaren jarduerari lotutako berankortasuna kanpo uzten bada, ratioa % **3,9an** kokatuko litzateke.

Zalantzazko aktiboen bilakaera eta berankortasuna (milaka MM €)




Eraginkortasun eta berandutza ratioen hobekuntza argiaz gain, Kutxabank Taldeak kudeaketako gainerako adierazleetan aurrerapen garrantzitsuak lortuta itxi du 2017ko ekitaldia. Europako Banku Aginteak (EBA, siglak ingelesez) burututako **gardentasun ariketak**, berriz ere, kokatu du Euskadiko Bankua Espainiako finantza **sektorearen buruan**, kalitate goreneko **kaudimen terminotan**, eta kontrako testuinguruei aurre egiteko ondoen prestatuta dagoen Europako erakundeetako bat dela ondorioztatu da.

2017ko abenduan, bai Taldearen **orotarako kaudimen koefizientea**, bai **Core Tier I** ratioa, % **15,7an** kokatu dira. **'Fully loaded'** bere bertsioan (kapitala kalkulatzea zenbaketa iragankorraren arauak aintzat hartu barik), indize hori % 15,3an geratu da finkatuta. **Apalankatze-ratioak**, bere aldetik, Estatuko lehenengo postuari eutsi dio, eta % **8,1ean** kokatu da, sektorearen batez bestekoaren oso gainetik.

| Adierazle nagusiak | 2016 | 2017 |
|----------------------------|-------|-------|
| Berankortasun ratioa | %6,59 | %4,89 |
| ROTE | %5,44 | %6,54 |
| ROE | %5,06 | %6,08 |
| ROA | %0,42 | %0,53 |
| Eraginkortasun Ratioa (*) | %56,1 | %51,2 |
| Core Tier I (Phase-In) | %15,2 | %15,7 |
| CORE TIER I (Fully Loaded) | %14,8 | %15,3 |
| Kapital Osoa | %15,2 | %15,7 |
| Palankatze ratioa | %8,1 | %8,1 |

Ezarritako helburuen ildotik, Kutxabanke bere **errentagarritasun-ratioak** hobetzen jarraitu du. **ROE** koefizientea, norberaren baliabideen gaineko errentagarritasuna neurtzen duena, **% 6, 08an** kokatu da, 102 oinarrizko puntu hobetu ostean 2016koen aldean. Bere aldetik, **ROTE** -ukiezinak kenduta inbertitutako fondoan ganean akziodunek lortzen duten errentagarritasuna neurtzen duen ROEren bilakaera bat- % 6,54an finkatuta geratu da, aurreko ekitaldiko % 5,44ren aldean.

CTE1 ratioaren bilakaera (%)



Kreditu-inbertsio produktiboaren saldoa hazi egin da

Kutxabank Taldearen **Negozio Bolumena 102.165 milioi** eurora iritsi da, % **1,8ko** urteko igoera du eta. Bezero-baliabideen bilakaerako hobekuntzaz gain, Euskadiko Bankuak **2017an kreditu-inbertsio produktiboaren desapalankatzea moteltzea** lortu du, azkenean, igoera esanguratsua gertatu baita **kreditu berrien kontratazio** erritmoan. Kutxabank Taldearen **Kreditu-inbertsio Gordina 42.771 milioi** euroekin amaitu da.

Kudeatutako Bezeroen Baliabideak, handizkako jaulkipenak aintzat hartu gabe, **59.394 milioi** eurora igo da, 2016ko abenduan baino % **4,6** gehiago. **Bezeroen gordailuek** (hipoteka-zedulek izan ezik) % **3,2** egin dute gora, **ageriko gordailuen** portaera onaren laguntzaz, % **13ko** igoera izan dute eta.

Interes-tasak gutxiengo historikoetan dauden honetan, bezeroek balantzetik kanpoko produktuetarako joerari eutsi diote, errentagarritasun erakargarriagoen bila, eta horrek hazkunde esanguratsuak ekarri ditu gure negozio-sareetara: **BGAEk** eta **Pentsio Planak** (% **3,9**) eta **Inbertsio Fondoak** (% **8,8**), eta zorroen kudeaketa eskuordetuaren funtzio oso esanguratsuz.


Banka Pertsonalak egin duen lan handiak, bere marjina gordina % 34 hazi da, baita Taldearen kudeatzaile biek, **Kutxabank Gestión** eta **Fineco-k**, sektorearen batez bestekoaren gaineko portaerari eustea lortu du. Horri guztiari esker, **merkatu-kuota** % **5,5** inguruan kokatu da. Kutxabank Taldeak **kudeatzaileen arteko laugarren postuari** eutsi dio, inbertsio fondotan, pentsio planetan eta BGAEtan kudeatutako **ondare bolumenari** dagokionez.

Merkataritza jarduera bizia segmentu eta produktu guztietan


Merkataritza jarduera bizia izan da, berriz ere, 2017an, hau da, palanka nagusia izan da ekitaldia ondo itxi dadin, hazkunde esanguratsuz finantza-**produktu berrien kontratazioan**, batez ere **enpresetarako finantzaketari**, **hipoteka-maileguei** eta **kreditu pertsonalei** lotuak. **Aseguruen negozio** gorakorrak egin duen ekarpenak ere lagundu du.

Hipoteka-merkatua gorantz doa, **etxebizitza erostera** bideratutako kredituen zenbatekoa % **17,3 hazi da**, merkatuaren batez bestekoaren gainetik banku-erakundeak diharduen lurralde guztietan. Merkatuko eskaintza osoenetako bat du, epeetan eta interes-tasetan malgutasun handia duelako, eta Kutxabankek gora egin du **kuota hipotekarioaren lidergoan**, % 38ren inguruan finkatu baita bere jatorrizko lurraldeetan.


Hipoteka maileguen kontratazioa (Xehekakoa, MME)




Kontsumorako maileguen kontratazioa (Xehekakoa, MME)



Deskontu komertzial berria (MME)



Kanpo merkataritzako finantziazio berria (MME)



Kontsumorako maileguen eremuan garatu duen jardueran ere indartsua izan da, % 25,2 hazi baitira, Xehekako Bankan baino ez. Aldarte positibo bera gertatu da **Komertziorako Kredituan**, % 46 hazi baita eta **Negozio Kontuetan**, % 63 hazi baitira. **Kanal digitalen** etengabeko **erabilerak** kreditu-jarduera horretan, finantzaketa-eragiketak **Online Banka** eta **Banka Mugikorraren** bitartez gauzatzen dituzten pertsonen kopuruak gora egin dezala ahalbidetu du.


Enpresen jarduerak gora egin du eta finkatu egin dute euren hazkundera

Enpresei inbertsio produktiboetarako eman zaien finantzaketak **hazkunde** handia izan du 2017an, % 30 ingurukoa. Kutxabank Taldeak **3.945 milioi euroko** orotarako zenbatekoa jarri du enpresa txiki eta ertainen eskura, 2016an baino %29 gehiago. Datu on hori **merkatuaren finkatze** testuinguruan gertatu da, **zalantzako aktiboen jaitziera** nabaria gertatu baita eta **sektorearen egoeraren hobekuntza argiaz**.

Kontratazio berrien bultzada positibo horrek, gainera, **kreditu-inbertsio produktiboaren** saldoen urte arteko bilakaera positiboari eustea lortu du, % 5,1 hazi dira eta.

Joan den urtean zehar, **1.217 enpresa txiki eta ertain batu zaizkio** Banku Taldearen **bezero-zorroari**.

Finantzaketa datuen bilakaerari begiratuta, 2017an ekoizpen eta enpresa biladura **dagoeneko krisitik atera dela** deritzo Kutxabankek. **Finkatze eta hazkundea horrek 2018an ere bere horretan eustea** espero du finantza-erakundeak.



Agenda digitala, lehentasun gorena

Agenda digitala eta teknologia berrien erabilera bezeroarentzako zerbitzuaren kalitatearen, erosotasunaren eta hobekuntzaren mesedetan izan da Kutxabank Taldearen lehentasun garrantzitsuenetako bat. **Online Banka** eta **Banka Mugikorra** 2016an erabat eguneratu ostean, joan den ekitaldiak **martxan jartze eta aurrerapenak** izan ditu irtenbide eta ekimen ugarietan. Horien artean, saltokietan eskukoaz ordaintzea, bezeroa bere **irudia edo hatz-markaren** bidez identifikatzea, txartelen eta erreziboen kudeaketa edo **enpresa arlorako hobekuntza** sorta esanguratsua.

Hori guztia, ardatz argia jarrita Banka Mugikorraren funtzionaltasunetan, erakundearen aplikazio nagusi bien bitartez: **Kutxabank App-a**, eta **KutxabankPay**, terminaletatik hainbat eragiketa segurtasunez egitea ahalbidetzen dutenak, ordainketak, erreziboak eta erosketak, besteak beste. **Bizum-en** bidez egindako transferentzia txikien bitartez baino ez, 2,3 milioi euro mugitu ziren 2017an.

Batez ere 'online bidez' diharduen bezeroen kopuruak **etengabeko hazkundea** du. Joan den abenduan egindako itxieran, Kutxabank Taldearen **bezeroen % 34,3 Online Bankaren erabiltzaile aktibo** ziren. **% 20 Banka Mugikorraren** erabiltzaile operatiboak dira, duela bi urte zegoenaren halako bi. 2017an smartphone bitartez egindako **eragiketa kontableen balioa 745 milioi eurora** iritsi da.